




# Gabonak Aiaraldean

*Gabonetako gehigarri berezia*





# Ilusiorako osagaiak

Abendua hilabete garrantzitsua da merkataritxikientzat, kontsumoa asko handitzen baita Gabonak eta urte berria direla eta. Hala ere, herritar gehienek saltoki handietara jotzen dute erosketak egitera.

Goraka doa baita ere Internet bidezko erosketen kopurua. Horren aurrean, tokiko merkataritza erabat funtsezkoa da eskualdearen bizitzarako. Eskualdean kontsumitu eta eskualdea oparitzeko gida aurkituko duzu hemen. Izan ere, Aiaraldetik mugitu gabe herrietako saltokietan topatu daitezke Gabonetarako beharrezko osagai guztiak.

## Azules *viste tu vida*



Landako 4, Amurrio

📞 656 76 22 33



1 Eurirako lumadun berokia, TANTÄ, 202€

2 Lumadun berokia, RESET, 343€

## Levi's



Araba kalea 1, Laudio

946 72 62 24 · 688 81 86 81



3 Emakumezkoen parka, NAF-NAF, 179,9€

4 Gizonezkoen sherpa, LEVI'S, 140€

## Kukuma



Zumalakarregi 45, Laudio

946 72 60 53



5 Haurren lumadun beroki luzea, CARS.

6 Haurren kamiseta, HIKA.  
\*HIKA produktuak bai aurrentzako zein helduentzako.



# Ilusiorako osagaiak

## Euskaltel *Xentia*

Zumalakarregi 38 behea, Laudio  
944 03 55 66



- 7 Samsung A16 5G 128GB/4GB RAM 1€/hil 36 hilabetez. Gero, 0€ itzultzen baduzu edo 139€ harekin geratzen bazara.
- 8 Iphone 16 5G 128GB/8GB RAM 22€/hil 36 hilabetez. Gero, 0€ itzulitzen baduzu edo 189€ harekin geratzen bazara.

\*Aukeran sakeleko modelo gehiago daude.

## Tximeleta



Zumalakarregi 50,  
Laudio  
946 72 27 20



- 9 Lumadun berokia, 166€
- 10 Artiledun jertsea, 68€

## Gancedo *Amurrio*



San Anton Armuru  
plaza, Amurrio  
945 02 63 60  
[www.gancedoamurrio.com](http://www.gancedoamurrio.com)



- 11 Lumadun berokia, YES-ZEE, 215€
- 12 Bota berotxuak, 64,95€

## Irrintzi *Euskal jantzi denda*



Batzalarrin 9, Laudio  
944 07 22 15



- 13 Material desberdinetako EGUZKILORE osagarriak.
- 14 Euskal Herrian egindako EUSKAL JANTZIAK, haur zein helduentzat.



## Ilusiorako osagaiak

# Babio mendia: elkartasunaren eta Gabonen sinbolo aurten ere



16 ordu Non-Stop-aren VI.edizioa eta Babio Igoeraren VIII. edizioa egingo dituzte abenduaren 23an eta 24an, Juan Urrutia plazatik abiatuta. Aurten, bildutako diru guztia Arabako Minbiziaren Aurkako Elkarteari emango zaio.

“Urrats bakoitzak balio du: ibili bizitzaren alde” lelopean ospatuko dira aurten eta VI. 16 ordu Non-Stop eta VIII. Babio Igoera, abenduaren 23an eta 24an. Aurrekoetan bezala Babio gailurra izango da protagonista.

16 ordu Non-Stop erronka abenduaren 23an hasiko da, arratsaldeko 18:00etan, Amurrioko Juan de Urrutia plazan. Orduro Babioko gailurrera 16 orduz jarraian igotzea izango da helburua. Antolatzaileek azaldu dute 5 kilometroko igoera eta 5 kilometroko jaitsiera eta 400 metrotako desnibela positiboa duen ibilbide oso erraza dela. Parte hartzeko Euskal Mendi Federazioaren webgunean izena eman beharko da izen-abizenak, NAN eta irteera ordua adieraziz. Igoera bakoitzeko 10 €-ko dohaintza egingo da, eta Minbiziaren Aurkako Fundazioari emango zaio osotasunean. Gainera, izena ematen duten lehenengo 500 pertsonak opari bat jasoko dute.

Gailurrean, gau osoan zehar, hornidura txiki bat egongo da, ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da eta gaueko orduetan argia erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Eguraldia kontuan hartuta, arropa eta oinetako egokiak erabiltzea gomendatu dute antolakuntzatik. Bestalde, gaueko 20:00etatik aurrera musika egongo da plazan. Dantzaldiak irauten duen bitartean, txosna solidarioaz gain, izena eman eta erronkan

parte hartu duten guztientzat hornidura ere egongo da.

Abenduaren 24an goizeko 10etan Juan Urrutia plazatik VII. Babio Igoera hasiko da. Igoera horretan Montes Solidarios eta Ezina Ekinez Egina elkarteek hartuko dute parte. Biak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira eta aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako mendiko jarduerak sustatzen eta antolatzen dituzte. Horretarako, pertsona itsuen eta ikusmen txikia duten pertsonen mendiko gidaritza trerabaturako pertsonak daude, baita Joëlette aulkia erabiltzen eta gidatzen dutenak ere. Aulki hori mugikortasun mugatuko pertsonak edozein eremutik mugitzeko berezia da. Babiora denok elkarrekin igoko dira, eta Olentzero zain izango da aurten ere. Ondoren herriko plazan hamaiketako egingo da. Amaitzeko, hainbat elkarte emandako produktuen zozketa egingo da.

### Arabako Minbiziaren Aurkako Elkarte

Aurreko edizio arrakastatsuan 6000€ inguru bildu ziren hainbat elkartereantz, hala nola, Alzheimerren eta beste demenzia batzuen aurka borrokatzen duen AFARABA elkartearentzat, Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioarentzat, Adela Euskal Herriarentzat, Montes Solidarios elkartearentzat... Aurten, bil-

dutako diru guztia Arabako Minbiziaren Aurkako Elkarteari emango zaio.

### Elkarte, negozio edo enpresak

16 orduko erronkaren igoerak bultzatu nahi dituzte antolakuntzak. Horretarako, nahi duen elkarte, negozio edo enpresa orok 40 €-ko prezioa duen igoera bat erosi ahal izango du. Diru hori Minbiziaren Aurkako Elkartearentzat izango da baita ere.

 **SURYA**

MASAJE TERAPEUTIKOAK  
MASAJE LASAIGARRIAK  
AURPEGI-TRATAMENDUAK  
GORPUTZ-TRATAMENDUAK  
ESTETIKA-TRATAMENDUAK

Zumalakarregi 28, LAUDIO  
944 030 362  688 887 950   @SuryaLludio



# Ilusiorako osagaiak



Gabonetarako opari-bonuak!

## OSASUNA ETA ONGIZATEA OPARITU

Eskuratu buruan duzun masajearen zein tratamenduaren bonua




SAIO  
PRIBATUAK



**YASONE MEABE**  
OSTEOPATIA  
Masaje zentroa  
Terapia alternatiboak  
Estetika · LNT saioak  
KAE saioak  
(kundalini activation)



Baias 7, LAUDIO  
**688 696 619**



**KOLOORE**  
Centro de Estética

Iturralde kalea 7, AMURRIO  
605 74 72 29  
www.kolooreestetica.com

### OPARITU HUTSALDUKO EZ DEN ZERBAIT, OPARITU ESPERIENTZIAREN OPARIA

 Ernaberritze errituala	 Bizitzaren elixirra
 Arnastu lasai errituala	 Zitrikoen errituala
 Osotasun errituala	 "Ekialdeko Lurrina" errituala

Eskaneatu nazazu informazio gehiago eskuratzeko





**Eusko PC**

· SALMENTA, KONPONKETA ETA MANTENUA  
· ENPRESAK ZEIN PARTIKULARRAK

20 urte baino gehiago zuekin

**Ezka Kalea 3, Laudio 94 608 73 10**

# OPARITU ONGIZATEA

**Egonaldi eta bainuetxe opariak:**  
bikoteentzako egonaldi erromantikoak,  
zirkuitu termalak, gosariak, masajeak...

**Erreserbatu  
ZURE  
BONUA!**



**Balneario Areatza**  
★★★

www.hotelbalnearioareatza.com  
balneario@hotelbalnearioareatza.com

**94 657 27 05**

www.hotelbalneariorduna.com  
balneario@hotelordunaplaza.com

**94 556 90 38**

**HOTEL ORDUÑA PLAZA**

\*\*\*\*  
**Balneario**







# Eskualdeko zaporeak



Otorduen inguruan elkartzeko sasoia dira Gabonak. Bazkari zein afarien bueltan aspaldiko zien eguneroko senide eta lagunekin elkartzeko une ezin hobea. Horretarako, ezinbestekoa da menu goxo eta atsegin bat aukeratzea, eta zer hobe tokiko produktuekin sukaldatzea baino!

Aiaraldean ekoizle, merkataria eta ostalari ugari daude kalitatezko eta gertuko zerbitzu bat eskaintzeko prest. Hurrengo orrietan Aiaraldeko zaporeen katalogo zabala topatuko duzu.



**Bideko**

Lezama auzoa, AMURRIO  
945 890 633 / 638 963 170  
www.restaurantebideko.com

*Lasaitasun eta zapore oneko momentuak oparitu*

Zure etxekoentzako opari ezin hobea

OPARI BONUA

.....-(r)en arretara

*Esperientzia gastronomikoa*





## Eskualdeko zaporeak

# Gozogintza tailer eta lehiaketak eskualdeko Gabonetaz gozatzeko



Bapo jateko sasoia dira Gabonak. Hori dela eta aurten ere ez dira faltako sukaldaritza eta gozogintza tailerrak. Okondon eta Artziniegan, esaterako turroiak egiteko ikastaroak antolatu dituzte abenduaren 15ean eta 20an, hurrenez hurren.

Faktorian, aldiz, sukaldaritza astea egingo dute abenduaren 23, 26 eta 27an. Egun bakoitzean bi errezeta ezberdin egiteko aukera izango dute parte-hartzen duten gaurrek, neguko eta tokiko jakiak erabilia.

### Artziniegako Gozogintza Lehiaketa

Urtero legez, Artziniegako Hiriska elkarteak Gabonetako Gozogintza Lehiaketaren edizio berria antolatu du. Abenduaren 14ean Artziniegako Udalean dastatuko dituzte postre parte hartzaileak 17:30etatik aurrera.



### PRESTAKETA

**1. Glasatzeko nahasketa prestatu:** Bol txiki batean, nahastu ezitia, kanela, jengibre, iltzea, laranja-zukua eta rona (azken hori aukerakoa da).

**2. Anana-xerrak prestatu:** Zartagin handi batean, urtu gurina su ertainean. Gehitu anana eta txigortu xerrak 3 minutuz alde bakoitzean, karamelizatu daitezten.

**3. Glasatua gehitu:** Bota glasatuaren nahasketa zartaginean dauden anana-xerren gainetik. Su baxuan kozinatu 5-7 minutuz, xerrak saltsarekin bustiz, estalita eta distiratsu egon arte.

**4. Zerbitzatu:** Jarri glasatutako anana-xerrak plater handi batean eta bota gainerako saltsa gainetik.

Gozatu!

## Selene eta Amanda

*Selene Frutadenda*

## Gabonetako anana glasatua

### Osagaiak

- Anana handi 1 zuritua eta xerratan moztuta (zuztarrrik gabe)
- 3 koilarakada ezti
- 2 koilarakada gurin
- Koilaratxokada 1/2 jengibre-hautsa
- Koilaratxokada 1 kanela-hauts
- Iltze-hauts apur bat
- Kikara 1/4 laranja-zuku
- Aukerakoa: 2 koilarakada brandy edo ron




Landako kalea 1, Amurrio

945 09 25 50

@frutadenda\_selene





## Puntako bertsolariak Urduñako Gabonetako Bertso Saioan



Urteroko zita bihurtu da Urduñako Gabonetako bertso saioa, eta aurten ere ez diote hutsik egin honen antolakuntzari. abenduaren 20an Urduñako Jai-Alai pilotalekuan puntako bertsolariak elkartuko dira: Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi. Sarrera doakoa izango da.

### Ekintza ugari

Gabonetako bertso-saioa ez da abenduaren 20an hirian egongo den ekintza bakarra izango. Izan ere, Gabonetako programazioaren barruan gorritz markatutako eguna da hau. Odolki-janarekin eta Bihotza Konpartsaren buruhandien kalejirarekin indartuko dute jai-giroa. Santa Zizilia Musika Bandak, aldiz, konzertua eskainiko du abenduaren 22an, eta 24an kalejira egingo du hiriko auzoetan zehar.



## Argiz bete dira Aiaraldeko kaleak

Gabon sasoiarekin batera argiz bete dira eskualdeko kale eta auzoak. Laudion eta Amurrion argiak pizteko ekitaldi jendetsuak egin dituzte, azken urteetako ohiturari jarraituz. Laudion ausaz hautatu zuten argiak pizteko etengailua sakatuko zuen herritarra. Amurrion, aldiz, bi iratxoren laguntza izan zuten herriko gaztetxoek argiak pizteko behar beste energia biltzeko.

## Abenduaren 12ra arte dago Mari Domingiri gutuna bidaltzeko epea



Mari Domingik postontzia jarri du Laudioko Faktorian, eta eskualdeko haurren gutunak jasoko ditu abenduaren 13ra arte. Postontzian honako hau adierazi beharko da: eskutitza jaso nahi duenaren izena eta helbidea. Gainera urtean egindako ekintzaren bat aipatu beharko da, Mari Domingik horren berri izan dezan. Mari domingik banan banan erantzungo ditu gutunak eta eskualdeko etxeetara bidaliko du agur pertsonalizatua.

**¡¡¡O!**  
BAZKARIAK · AFARIAK · JAIA  
*Gabonetan liatu Lion!*  
Zubiko-Kurajo, LAUDIO  
620 12 89 48

**URDAITEGIA  
OILASKO DENDA  
M.<sup>a</sup> PAZ  
Produktu Bikainak**

Egizu eskaera denboraz, ez galdu zure jakirik gogokoena dastatzeko aukera!

Zubiko Kurajo 2, LAUDIO

Zorionak eta urte berri on!  
**PRODUKTU BIKAINAK**  
urdaitegia  
**M.<sup>a</sup> PAZ**  
Produktu Bikainak

946 720 467



# Eskualdeko zapoak



**Goxe Berri**  
Fruituak eta Barazkiak  
Jose Madinabeitia 1, AMURRIO T. 945 89 08 47

- Nafarroako produktu hautatuak
- Zure sukaldarako Gabonetako jaki onenak:  
Madariak, laranjak, ananak, kardua...




**Gabonetan ere egin gurekin topa!**

Pintxoak · Sandwichak  
Bokatak · Errazioak

Zumalakarregi etorbidea 35, LAUDIO  
94 672 38 08



**DASTAKETA**  
GOZOKI DENDAK  
www.pasteleriadastaketa.com

**Gabon gozoenak Dastaketarekin**

Lamuza kalea 5, LAUDIO 94 672 07 13  
Landako 2, AMURRIO 945 89 14 70  
Severo Otxoa 33, ARRIGORRIAGA 94 400 88 89



artz-iniegako enpresa eta merkataritza elkartea

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**



**Frutería Josu**

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

**Etxez etxeko zerbitzua**

Lamuza, 3 LAUDIO ☎ 94 672 01 95

1982AN SORTUA

**GORKA**  
• T A B E R N A •  
*eguberrri on!*

GABONETAN BARRA ESKAINTZA BEREZIA:  
OSTRAK, GANBAK ETA OTARRAINXKAK

EGUNERO  
Pintxo barra

ASTEBURUETAN  
Errazioak

IGANDEETAN  
Brunch  
\*Aldez aurreko erreserbekin

BATZALARRIN KALEA 7, LAUDIO - 94 672 49 30 - @GORKATABERNA



1929 urtetik  
**LA ENCINA**  
RESTAURANTE

Astelehenetik ostiralera  
eguneko menuak

**Gabonetan ere, egin gurekin topa!**

Garay hiribidea, 4 Artziniega (Araba)  
ERRESERBATZEAK: 945 39 60 40 / 945 39 62 55



**eltunel**  
TABERNA-JATETXEA

Taldeentzako afariak · Etxera eramateko janaria  
Igandeetan, abenduaren 25ean eta 26an, eta urtarillaren 1ean eta 2an itxita.



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO // Tel. 94 672 05 58 // /barrestauranteeltunel

**TOÑI**  
**ARRAINDEGIA**

Jai zoriontsuak!

Kontsultatu eguneko aukera gure Whatsapp egoeran  
Eman begirada bat eta egin zure eskaera!  
Gabonetan ere produktu bikainak

Zubiko Kurajo 2, LAUDIO  
☎ 621 21 65 98 · 650 42 13 51 toniarraidegia@gmail.com



# Elkarrizketa



## “Mari Domingiri nortasun propioa eman diogu ipuinean”

**IRATI MENDIGURENek, JULENE ONAINDIAK ETA EIDER GARCIAK**

AIARALDEKO MARI IPUINA SORTU BERRI DUTE, MARI DOMINGIREN FIGURA BERRIKUSI ETA IRUDITEGI BERRI BAT PROPOSATZEKO HELBURUAREKIN.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Aiaraldeko Mari ipuina plazaratu duzue, Gabonetako pertsonaiaren iruditegi berria eskaintzeko asmoz. Nondik dator iruditegi berri horren beharra?**

Idea aspalditik dator. Mari Domingiren figuraren inguruan hausnartu genuen, eta ohartu ginen oso lotuta dagoela Olentzeroren figura oso maskulinizatu batekin, eta gainera ikusten genuen eskola bakoitzean modu desberdinetan lantzen zutela. Ikastetxe batzuetan Olentzeroren bikote afektibo-sexuala zen, beste askotan laguntzaile rol batera mugatzen zen. Guk ulertzen genuen izaera hori aldatu behar geniola, eta nortasun propio bat eman behar geniola.

Hausnarketa horren emaitza da ipuina, guk Mari Domingiri aitortzen diogun

izaera aldarrikatzeko modua. Mari Domingiren iruditegi eta istorio berriak sortu ditugu. Mari Domingiren iruditegia goitik behera aldatu dugu. Praktikasoian eta esku artean aitzurra duela aurkeztu dugu Mari Domingi, bere langile izaera azpimarratzeko. Iruditegi berri hori baliatu dugu balio ezberdinak transmititzeko.

Ipuinaren hasieran marko teoriko baten moduko zerbait txertatu dugu. Bertan daude azalduta Mari Domingiren figuraren sorrera eta bilakaeraren nondik norakoak. Hain zuzen ere, Ikastolen Elkarteak lana egin zuen pertsonaia Euskal Herri osotik hedatzeko, Gabonetako testuinguruan emakumezkoaren figura aldarrikatzeko ere. Figura berri horrekin, ordea, ez zen behar besteko lanketarik egin, eta, beraz bigarren mailako pertsonaia bilakatzen da, edo heteronormatibitateari

**BURUTXAGA**  
INDUSTRIAS CÁRNICAS



· PRESTATUTAKO JAKIAK  
· EUSKADIKO APARTEKO HARAGIA  
· TOKIKO ARKUMEA  
· TXORIZOA, ODOLOSTEA,  
TXISTORRA ETA ETXEKO  
SALTXITXAK

AMURRIO

> Elexondo 15 – 945 890 186  
> Landako 18 – 945 890 111  
> San Anton enparantza 1  
> Aldaiturriaga poligonoa 16  
635 742 672 / 606 456 671

LAUDIO

> Karmen kalea 31

Burutxaga Harategiak  
 Burutxaga Hestebeteak

**ARZA**

**HARATEGIA - URDAITEGIA**

Espezialitatea arkume- eta behi-haragian

Urte berri oparo eta zoriontsua!

☎ 94 672 05 88

Batzalarrain, 9 - LAUDIO  
inaki.arza@gmail.com

**ILARGI  
TABERNA**

Jai zoriontsuak!

Batzalarrin kalea 6, Laudio  
94 672 09 99



# Eskualdeko zaporeak

erantzuten dion figura hutsa. Mari Domingiren sorrerarekin abiatutako prozesu horri ekarpena egin nahi diogu, eta figurari buleta bat eman.

Argi daukagu, eta ipuinean hori saiatu gara adierazten, Mari Domingi asko daudela Euskal Herrian jadanik guk egiten dugun hausnarketa bera egiten dutenak, eta kalera ateratzen direnean diskurtso horretatik ateratzen direnak. Baina ikusten genuen eskola askotan arestian aipatutako bigarren mailako rol horretatik ari zirela lantzen.

## Ipuinarekin batera, abestia ere plazaratu duzue.

Mari Domingiren pertsonaiak zuen lanketa falta oso argia da gabon-kanten tesutinguruan. Gabon-kanta bakarra zuen Mari Domingik, kutsu erlijiosoa zuen abesti bakarra izan du urte luzez, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek gerora beste bat plazaratu arte. Eskoletan, ordea, kutsu erlijiosoa zuen abestia zen nagusi. Hori dela eta, ipuinarekin batera, abestiaren moldaketa bat proposatu dugu ere. Proposamen berri hori ez dugu modu apurtzaile batean egin, baizik eta aurretiaz zegoen abestiari letra aldatuz. Mundu guztia barnebidu dezaken markoa duen abestia sortu dugu, hitz gutxi batzuk aldatuta.

## Zein adin tartearako da egokia ipuina?

Ipuinak gozatzeko modu desberdinak planteatzen ditu mahaigainean Faktoriako Hezkuntza Ildoak. Ipuinak berak bi formatu ditu: ipuin osatua deitzen dioguna eta ipuin laburra. Ipuin laburra letra larriz aurkeztu dugu irakurtzen ikasten ari diren umeek ere gozatu ahal izateko edota haur oso txikiei kontatzeko, hortik egiteko ere. Ipuin osatua, aldiz, LH etapan dauden haur guztiek irakurtzeko moduko ipuina da. Ipuin

berak bi moldaera ditu ahalik eta adin gehiagotako haurren gozagarri izan dadin. Piktogramen bidez ere kontaktu dugu ipuina, ume batzuek horrela komunikatu eta irakurtzen dutelako. Ikusten genuen garrantzitsua ekarpen hori egitea ere. Bideo bidez ere eskainiko dugu, zeinu hizkuntzan ulergarria izan dadin. Edozein haurrek jaso dezakeen ipuina da. Baita eusakara ikasten ari den oro, kapaza izango da testua irakurri eta ulertzeko. Hori da lanaren balio erantsia.

## Aiaraldeko Mari da ipuinaren izenburua. Tokikotasuna nola lantzen da istorioan?

Ipuin guztiaren ikuspuntua dago Aiaraaldean kokatua. Ipuinaren hari eroalea da Mari Domingik kapela galtzen duela. Kapela horrek Gorobelego Fraideburu haitzaren forma hartzen du bukaeran. Hor joko bat sortu nahi izan dugu: eskualdeko haurrek Fraideburu ikusterakoan bertan Mari Domingi dagoela jakin dezaten. Magia hori Aiaraaldean eta Gorobelen kokatu dugu.

## Ikastetxeetara eraman duzue Mari Domingiren ipuina?

Harremana egin dugu Aiaraaldeko ikastetxeekin, eta ipuina oparitu diegu. Ipuina ez da salmentarako produktu bat, baizik eta etxe guztietan Mari Domingiren inguruko lanketa egiteko tresna bat. Bide horretan eskolak ezinbetseko bidelagun dira.

Arnas luzeko ipuina da, ez da 2024ra mugatzen. Ziurrenik datorren urteko Gabonetan ipuina izango dute oinarri Aiaraaldeko ikastetxe gehienek Mari Domingiren gaia lantzerako orduan. Gu ere prest gaude ikastetxeei lanketa egiteko baliabideak eskaintzeko, haien beharren arabera.

## Aida Fuentes Iza

*Iza Okindegia & Goxotegia*



*A zer zoriona gabon hauetan ere zuen mahaietan lagundu ahal izatea!*

*Gure pasio guztiarekin egindako ogi eta gozoen gabon eskaintza berezia sortu dugu, kutixiez bete!*

*Eskerrik asko gu aukeratzeagatik eta zuen okina izaten uzteagatik.*

*Eguberriez, konpainiaz eta ogi onaz gozatu ezazue!*

*Zorionak eta urte goxo on!*



AIDAREN LABEA

EL OBRADOR DE AIDA

1956

**IZA**

OKINDEGIA & GOXOTEGIA

Zumalakarregi 30, LAUDIO

Kurtzegan 3, OROZKO

Tel.: 94 672 84 94 / 94 661 00 68



Enkargatu telefonoz!



• **PAELLAK**  
marisko, valentziar erara, arroz beltza, fideua...

• **OILASKO ERREAK**

- ETXEKO MARMELADAK
- PIPER POTOAK bertan erretakoak
- KM 0 PRODUKTUAK



BATZALARRIN 10,  
LAUDIO

**indriska**  
Eguberri on!

EGIN ZURE ENKARGUA Mirian 618 836 139 Juan Carlos 675 942 804  
Aldaiturriaga industrialdea 17-18 pab., AMURRIO



## Eskualdeko zaporeak

# Eskualdeko erakusleiho onenaren bila ari dira



Guztira eskualde osoko 32 establezimendu ari dira parte hartzen Aiara-ko Erakusleihoen XI. Lehiaketan. Abenduaren 18an iragarriko dituzte irabazleak, Okondon egingo duten ekitaldian.

Gabon garaia irudimena dantzan jartzeko sasoia izan ohi da, eta horrela egin dute Aiaraldeko hainbat saltokitan ere. Izan, ere ugariak dira tokian tokiko merkatariek antolatutako erakusleiho lehiaketak. Aiaraldean ere erakusleiho onenaren bila ari dira. AEKOK (Aiaraldeko Enpreseen Koordinaziorako Federazioa) antolatuta, Aiara-ko Erakusleiho Lehiaketaren XI. edizioan parte hartzen ari dira eskualde osoko 32 establezimendu. Laudio, Amurrio, Artziniega, Aiara eta Okondoko negozioak daude norgehiagokan murgilduta. Azken asteetan epaimahai tekniko batek negozio

bakoitzeko erakusleihoa arretaz baloratu du, eta datoren abenduaren 18an Okondon egingo duten sari banaketan iragarriko dute zein den Aiaraldeko erakusleihorik ikusgarriena. Lehiaketaren antolakuntzatik parte hartzaileen maila eta kalitatea azpimarratu dute. “Oso maila altua dago eskualdean, eta horrek, Aiaraldean ez ezik, Araba mailan ere badu oihartzuna. Izan ere, eskualdeko erakusleiho batek edo bestek urterotero lortzen du aipamena eta saria Arabako Merkataritza Ganbarak antolatutako Visual sariketan”, adierazi diote Aiaraldea Komunikabideari. Aurten gainera

AENKOMER elkartek kuadrilla arteko erakusleiho lehiaketa antolatu du ere.

Aiara-ko Erakusleiho Lehiaketan epaimahai tekniko batek baloratuko ditu parte hartzaileak, baina Laudio zein Amurrioko lehiaketetan herritarrena da hitza. Guztira 16 dira Laudioko XXXIII. Lehiaketan parte hartzen duten establezimenduak, 12 Amurrioko XI. Lehiaketan. Batean zein bestean, bozkatzeko txartelak saltokietan topatuko dituzte herritarrek, edo Berrikusi aplikazioa erabili ahalko dute erakusleiho gustukoena aukeratzeko.

**Haitzulo barri**  
1982tik elkarrekin dantzan

**Ezagutu tardeo jaia!**

Alberto Acero  
enparantza, LAUDIO

Instagram Facebook

**BIDERDI**

- Garagardo anitzak
- Pintxoak
- Enkarguzko tortilak

Jose Madinabeitia 8, Amurrio  
663 53 19 67

**kafe iluntze**

Gabonetan ere  
topa egin gurekin!

2025 zoriontsua izan!

Zumalakarregi Etorbidea, 47  
01400 Laudio - Araba  
kafeiluntze@gmail.com 946725023

Facebook Instagram



# Eskualdeko zaporeak

## Eskualdeko 8 emakume sortzailek ezaugarrituko dute Aiaraldeko emakume\* sortzaileen IV. Azoka



Faktoriako feminismo ildoak laugarrenez antolatu du Aiaraldeko emakume\* sortzaileen azoka. Abenduaren 15ean, igandez, izango da hitzordua, eta eguerdia baliatuko dute horretarako.

Hain zuzen, 12:00etatik 14:00etara iraungo du ekimenak. Azaroaren hasieran zabaldu zuten izena emateko epea, eta zortzi izango dira euren lanak erakutsi eta salgai jarriko dituzten sortzaileak: Kuluxka (Arrankudiaga-Zollo), Leike (Amurrio), Eider Garcia

(Amurrio), Eskerrak ahulak garen (Urduña), Matraka (Arrankudiaga-Zollo), Kreagune (Orozko), Hiru Concept Store (Amurrio-Menagarai), Bor-Bor elkar-tea (Aiaraldea).

Hala, eguerdi giro ederrean saretzeko plaza ere bilakatuko da Faktoria. Eskaintzaren inguruan, umeentzako jantziak, belarritakoak, buruko zapiak eta bufandak, kamisetak, keramika piezak, ilustrazioak eta abar topatuko dituzte bertaraten direnek.

## Artomaña

*Txakolina*



## Artomañako txakolinarekin egindako mojitoa

### Osagaiak (2 edalontzientzako)

- 40 ml Eukeni Txakolina
- 2 Azukre koilarakada
- 5 mendafin hosto
- 40 ml Limoi zuku
- Nahieran txikitutako izotza
- 4 menda hosto
- Limoi 1



### PRESTAKETA

1. Mojitoaren oinarria egiteko edalontzian txikitutako izotza eta zatitutako mendafin hostoak sartu.
2. Gero, nahieran gehitu Eukeni Txakolina eta limoi zuku.
3. Azkenik, azukrea gaineratu.
4. Basoa apaintzeko, ertzak limoi zukuarekin buzti, bertan azukrea bota eta edalontzi barruan 2 menda hosto kokatuko ditugu.

*Azkenik, konbinatu bertoko gazta eta Eukeni txakolinaz egindako gelée pintxoarekin! On egin!*

**ARTOMAÑA**  
*Txakolina*

[www.artomanatxakolina.eus](http://www.artomanatxakolina.eus)

[f](#) [@](#) [@artomanatxakolina](#)



Giro lasaiaz eta koktel paregabeaz gozatu

Mundu osoko artisau-garagardoak

Kafe karta, smoothiak, irabiaki naturalak, infusioak, te hotzak, txokolateak...



Alberto Acero enparantza 13 (Laudio) 94 672 42 13

[@](#) [f](#) [@azokakafebar](#)



*Gabon ganean, gabonzahar ganean eta errege ganean zabalik!*

Dionisio Aldama Kalea 1, Amurrio · 604 82 31 40



# Gabonetako agenda

Gabonek izen propiorik badute, horiek Mari Domingi eta Olentzero dira. Mendian lanean igaro dute urtea, baina aurki gure artera etorriko dira. Aiaraldeko kaleetan ere izango dugu biei harrera egiteko aukera. Izan ere, ugariak dira herriz herri eta auzoz auzo antolatutako kalejirak.

Mari Domingi eta Olentzerori harrera egiteaz gain, beste hamaika ekintzez gozatzeko aukera egongo da datozen egunetan: Bertso-saioak, azokak, mendi-irteerak, tailerrak... Aiaraldea.eus atarian kontsultatu daitezke hitzordu guztiak.



## Abenduak 14, larunbata

15:00// Okondo

GABONETAKO PARKEA, PUZGARRIAK, JOLASAK ETA TAILERRAK

*Foru Plaza*

17:00// Artziniega

GABONETAKO II. ARTISAU AZOKA,

*Foru Plaza*

## Abenduak 15, igandea

12:00// Laudio

AIARALDEKO EMAKUME\* SORTZAILEEN IV. AZOKA

*Faktoria*

## Abenduak 17, asteartea

19:00// Amurrio

MUSIKA ESKOLAREN GABONETAKO KONTZERTUA

*Amurrio Antzokia*

## Abenduak 20, ostirala

19:00// Urduña

GABONETAKO BERTSO SAIOA: NEREA IBARZABAL, AMETS ARZALLUS, UXUE ALBERDI ETA UNAI ITURRIAGA

*Jai-Alai pilotalekua*

19:00// Amurrio

GABONETAKO KONTZERTUA:

ANDERE ETA HASPEREN ABESBATZAK

*Amurrio Antzokia*

## Abenduak 23, astelehena

18:00// Amurrio

BABIORA IGOERA NON-STOP

AMURRIO TRAIL TALDEA

*Juan Urrutia Plaza*

## Abenduak 24, asteartea

12:00// Aiara

OLENTZEROREN KONDAIRA JOSTAILU BILKETA

*Olabezar*

16:30// Urduña

OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRI HARRERA ETA KALEJIRA

*Jai-Alai pilotalekua*

16:30// Amurrio

OLENTZEROREN KALEJIRA

*Osasun Zentroa*

16:30// Orozko

OLENTZEROREN KALEJIRA

*Nagusien egoitza*

17:00// Areta

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA

*Santa Ana*

17:00// Okondo

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA

*San Bartolome Plaza*

17:15// Arrankudiaga-Zollo

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN KALEJIRA

*Garondo*

17:30// Orozko

OLENTZERORI HARRERA

*Zubiaur Plaza*

17:30// Laudio

MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN BISITA

*Nagusien Etxea*

18:15// Artziniega

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN KALEJIRA

*Toñin Luengas frontoia*

18:15// Laudio

MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN KALEJIRA

*Nagusien Etxea*

18:30// Amurrio

OLENTZERORI AGURRA

*Juan Urrutia Plaza*

19:00// Arakaldo


OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN KALEJIRA

*Plazatik*





## Babestutako edukia



# ABENDUA

## FAKTORIAN



**13, barikua**  
17:00-19:00 · Faktorian  
KOKORIKO/  
**NEGUKO LUDOTEKA**  
EZ GIDATUA  
DOAN  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**15, domeka**  
12:00-14:00 · Faktorian  
AZOKA/  
**AIARALDEKO**  
**EMAKUME\***  
**SORTZAILEEN**  
**IV. AZOKA**  
DOAN  
#FEMINISMOFAKTORIA



**17, martitzena**  
18:00 · Faktorian  
FAMILIEN KABIA/  
**PORNOGRAFIA ETA**  
**GUNE DIGITALA**  
JONE ZALDUEGI  
DOAN  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**22, domeka**  
11:00-13:00 · Faktorian  
KOKORIKO/  
**0-3 URTEKO**  
**HAURRENTZAKO**  
**JOLAS LIBRERAKO**  
**ESPAZIOA**  
BAZKIDEEK 5€  
EZ-BAZKIDEEK 6€  
#HEZKUNTZAFAKTORIA




**22, domeka**  
19:00 · Faktorian  
POESIA MUSIKATU EMANALDIA/  
**MANTTALINGO ALABA**  
DOAN  
#KULTURAFAKTORIA



**23, 26 ETA 27**  
09:00-13:30 · Faktorian  
KOKORIKO/  
**GABONETAKO**  
**SUKALDARITZA**  
**NEGULEKUA**  
BAZKIDEEK 45€  
EZ-BAZKIDEEK 55€  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**30, astelehena**  
11:00-13:00 · Faktorian  
KOKORIKO/  
**URTEARI AGUR JAIA**  
DOAN  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**URTARRILAK**  
**2 ETA 3**  
09:00-13:30 · Faktorian  
KOKORIKO/  
**DANTZAREKIN**  
**JOLASEAN NEGULEKUA**  
BAZKIDEEK 35€  
EZ-BAZKIDEEK 45€  
#HEZKUNTZAFAKTORIA

**\*OHARRA:**  
NEGUKO OPORRENGATIK  
ABENDUAK 24, 25 ETA 31 ETA  
URTARRILAREN 1ETIK 6RA  
FAKTORIA ITXITA EGONGO DA.

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**  
HARPIDETU GURE WHATSAPP  
KANALERA!



AIARALDEA EKINTZEN  
**FAK**  
**TOR**  
**RIA**



WWW.FAKTORIA.EUS







HI MUGI FISIOTERAPIA, ARRATE GESTORIA, LAUDIO WELLNESS, MATERIAL DE CONSTRUCCION AIALA, ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA, ELKARLAN, LAUDIO BHI, ITXINA TABERNA, CAFE ARABA, KIRTANA YOGA, LAUDIO IKASTOLA, ESKOLA PUBLIKOAK, LA MILAGROSA, MANTENIMIENTO Y SERVICIOS, LA ENCINA JATETXEA, GOROBEL CROSSFIT, CONSTRUCCIONES COSME, ARESKETA IKASTOLA, FRUTAS JOSU, SELENE FRUTADENDA, TREBIÑU SAGARDOTEGIA, AD INTERIOR DESIGN, GOIENER, CUADRABUS, ARABAKO FORU ALDUNDIA, DBH GASTROBAR, AEME, OPEN YOUR MIND, HITZ ZENTROA, ABIAGA JATETXEA, GARABILLA LANDETXEA, CARNICERIA SAN JOSE, IZA JATETXEA, ANTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA, KUKUMA, PLAZA AMURRIO, AMAURRE IKASTETXEA, PROIEKTA STUDIO, ERRIGORA, HOTEL ORDUÑA PLAZA, BERRIA TALDEA, APARTAMENTOS CIUDAD DE ORDUÑA, KOLOORE, AZULES, YANDIOLA HORTZ KLINIKA, TALLERES PICAZA, ODEIBAR, ALANBIKE, AMURRIO LOGOPEDIA, GRAFIK, PINTURAS REGUERA, ENTRE3 ILEAPAINDEGIA, AITOR GARTZIA, OROZKOROCK, TALLER FUENTES, ECOMOBEL, ELECTRICIDAD ALBIZUA, TORRE ANAIK, SURYA, MADERAS TORRESAR, URDUÑAKO UDALA, SUZIRI JAI BATZORDEA, LAUDIOALDE, ARTZINIEGAKO UDALA, EGURLAN, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA, BIDERDI, TXANGO GASTROTABERNA, GANCEDO, EH BILDU, ZARAOBE, EGUZKILORE ILE-APAINDEGIA, PIRINEUM TABERNA, SITO UGARTE, KOPAS, ARABA EUSKARAZ, BAT GARA TXAKOLINA, ARTOMAÑA TXAKOLINA, ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO UDALA, BIONE NEUROEMOZIOA, AXA ASEGURUAK, TXIMELETA, NR ABOGADOS, IZA ASCENSORES, URDUÑAKO HERRI IKASTETXEA, ARATEI, LUCAS REY, ETXAUREN, AIARABIKE, EUSKAL HERRIA ESNEA, AIALUR, AMURRIKO BATZOKIA, LEGATZA ARRAINDEGIA, EL TALLER DE ALEX, ASASAM, ASESORIA AIALA, IBERLANDA, ZELAIKOETXE, ARAKALDOKO UDALA, OROZKOKO UDALA, EL RINCONCITO, IZA OKINDEGIA, EL LIO, GOXE BERRI, AZOKA, DASTAKETA, ISHTAR ACADEMY, OKONDOKO OKINDEGIA, LAUDIOKO UDALA, ARABAKO TXAKOLINA, KUTXABANK, BIDEKO JATETXEA, XARMANTA, AMURRIO FERROCARRILES, GORKA TABERNA, EL TUNEL, SUSTRAIAK FISIOTERAPIA, HAITZULO BARRI, EUSKO PC, BASARTE CONSTRUCCIONES, ULTRAMARINOS SALLEN, ENKARKI, ARTEKO GURE AMA, URDUÑAKO BATZOKIA, ZABALEKO, FINCAS IPS, ARBIZU KANPINA, EL RACÓ DE FUSTER, ARETAKO JAI BATZOREA, ONIEVA, GRAFICAS ARAKALDO, BIDERDI, UGARTEKO ESTANKOA, APILL, AEK, BABIOTEC, EZPELABARRI, AIS FARMAZIA, TRANSPORTES GANZABAL, FONTANERIA URAGORRI, ELEKTROHOB, ARETXONDO TABERNA, ALBAÑILERIA SOUTO, ANA MARI HARATEGIA, FONTANERIA VIRTUS, VILLA FLORIDA, FONTANERIA RAGA, ARTIÑANO ETXEA, BERTSOLARI ALDIZKARIA, YASO, EUSKALTEL, EPA LAUDIO/AMURRIO, VITAL FUNDAZIOA, ARTZINIEGAKO ESTANKOA, GARAJE YAS, HIKEI JATETXEA, LABORAL KUTXA, GUK TABERNA, BAISSALA, HIT MODA-DENDA, INMOBILIARIA ETXAURRE, INNOTU, AIARAKO KUADRILLA, LIVING ENGLISH ACADEMY, PIENSOS VALLE DE AYALA, QUICK PC REPAIR, OLETA JATETXEA, ILUNTZE KAFE, GENERALI SEGUROS, CANDIDO BESA, EGOKI FISIOTERAPIA, LANDALUZE ALBAITARIA, EKILORE DENDA, SOBRON, ILARGI TABERNA, IZAN AMURRIO, LA CASA DE RESA, URIOSTE TABERNA, INDRISKA, BONAIRE, UNAN JANTZIDENDA, ARZA HARATEGIA, TOÑI ARRAINDEGIA, BURUTXAGA, MARI PAZ URDAITEGIA, ESKA TAILERRA, BEBIDAS SERRANO, IRRINTZI, LUYANDO OPTICOS, SORPRESA, AIARAKO UDALA, HIRUKA KOMUNIKABIDEA, GARATE TXAKOLINA, LATIORRO JAI BATZORDEA, MAPFRE ASEGURUAK, EH ESNEA

## *Urte berri on eta eskerrik asko*

*...eta AIARALDEA lagun edo Bazkide horri, proiektu hau egiten eta zabaltzen laguntzen gaituzulako, datorren urtea ederragoa izan dadila opa dizugu!*

**AIARALDEA**

KOMUNIKABIDE  
FAKTORIA

[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)